


AITA DONOSTIAREN EUSKAL KANTUTEGIA ETA HERNANI

Juan Mari Beltran Argiñena

Hernanik, denok dakigunez, aspaldidanik dauka musika eta musikarien harrobi izatearen ospea. Herri musika alorrean ere, noski, eta horren lekuko "HERNANI" aldizkariko aurreko alean agertu zen Azkueren kantutegikoa. Orain beste frogabat aurkeztuko dugu, hau da, Aita Donostiak bildutakoaren artean, Hernanin jasotakoa.

Aita Donostia izan da Euskal Herriak eman duen musikari handienetakoa, bai musikologo edo musika ikertzaile, bai sortzaile gisa. Bi alor hauetan bereziki ezagutzen dugu berak egindakoa, baina badu hain ezaguna ez den beste alde bat, hau da, bere bizian zehar herri musikarekiko izan zuen jarra aktiboa musika biltzaile eta ikertzaile gisa. Bigarren honek Hernanirekin duen lotura eta bere Euskal Kantutegiaren azken prestakuntza Hernanin egin dela aprobetxatuz, "HERNANI" aldizkarian gure herriko ondare horren agerpena eta hau posible egin duenaren omenezko aipamen bat egin nahi genuke.



Hasteko, Musikari handi honen eta berak egindakoaren aurkezpena egin nahi genuke.

AITA DONOSTIA MUSIKARIAREN AURKEZPEN LABURRA

Jose Gonzalo Zulaika Arregi Donostian 1886ko urtarrilaren 10ean jaio eta Lekarozen 1956ko abuztuaren 30ean hil zen.

1896an Lekarozko Kaputxinoetan sartu zen eta batxiler eta gainerako ikasketak egin ondoren 1908an presbitero ordenatu zen Aita Jose Antonio de Donostia erlijio izena harturik

Gaztetik ikusten zitzaizkion musikarekiko zaletasun eta gaitasun handiak. Lekarozen sartu aurretik, Donostian solfeo eta bibolina ikasten aritu zen eta Lekarozen jarraitu zituen bere ikasketa musikalak bertako Aita Nikolas de Tolosa eta Aita Tomas de Elduayen irakasleekin. Geroago, goi mailako musika ikasketak egin zituen, Euskal Herrian eta kanpoan garaiko irakasle ospetsuekin.

Konposatzaile gisa 11 urterekin hasi zuen etorkizunerako utzi duen bere obra garrantzitsu eta ugaria, Aita Donostiaren izena mundu osoan hain ezaguna egin duena. Aita Jorge de Riezu bildu, prestatu eta argitaratu zuen hamabi musika liburutan musikari honen emaitzaren zati handiena (Obra Musical del P. Donostia).

Musikologo, kritikoa, hizlari, ikertzaile eta folklorista gisa egindakoa Aita Jorgek prestatutako beste bost liburutan argitaratu zuen (Obras Completas del P. Donostia t. I, II, III eta Obra Literaria del P. Donostia t. IV, V).

Folklorista gisa, hemen bereziki aipatu eta azaldu nahi duguna, 1911. urtean hasten da gero iraunkortasunez bere bizi osoan mantenduko duen ekimena.

Nondik sortu zitzaizkion Euskal musika herrikoiarekiko maitemintze eta zaletasuna? Aita Jorge de Riezu argitaratutako Aita Donostiaren biografian irakur dezakegunez, 1901an euskal musika herrikoari buruz Azkuek emandako hitzaldi batek eragin handia izan omen zuen gure musikariengan, geroago 1906an Gaskuek emandakoak ere, baita honek idatzitakoa. Handik aurrera jarraitu zuen Euskal musikari buruz egiten zenaren estudioan.

AITA DONOSTIAREN EUSKAL KANTUTEGIAREN HISTORIA

1911an hasi zuen kantu eta doinu zahar bilduma egiten. Hasieran Baztango herri eta baserrietan zehar, gero bere ibilbidea jarraitu zuen Euskal Herri guztian zehar, bereziki, Nafarroa, Baxenafarroa, Lapurdi eta Zuberoan.

Garai hartan Euskal lau Diputazioek antolatutako euskal doinu herrikoiei bildumen lehiaketarako prestatu zuen bere lehen bilduma "Euskal Eres-Sorta" izenburuarekin. Antolatzaileek, Azkueren "Cancionero Popular Vasco"ri eman zioten lehen saria eta aurkeztutako bi bildumak argitaratuak izan ziren. Horrela, 1922an, 393 doinuz osaturiko Aita Donostiaren E. E. S. argitaratua zegoen.

Geroztik, eta hil arte, beste mota batzuetako lanekin batera jarraitu zuen eginkizun honetan. Urte horietan, musika herrikoiei eta folkloreko lan asko prestatu eta argitaratu zituen argitalpen desberdinetan. Horren lekuko, hor ditugu Baionako "Gure Herrian", "Euskal Herriaren Alde", "Yakintza" eta "Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País" besteak beste.

Hil aurretik, ordurako argitaratutako guztiarekin, gehi bere karpetetari gorderik zeukan beste askorekin, Euskal Kantutegi Herrikoiei handi bat osatu nahi zuen. Baina ez zuen denborarik izan horretarako eta bere biziko amets hori ez zen gauzatu bizirik zegoelarik.

Gure artetik joan aurretik, anaia eta laguntzat izan zuen Aita Jorge de Riezuri eskatu zion bukatu gabe uzten zuen egindako eta bildutakoaren ordenazioa eta prestakuntza. Lehenago aipatu dugun bezala, Aita Jorge buru belarri aritu zen eginkizun horretan eta 1985erako argitaratua zeukan Aita Donostiaren Obra Musikala eta Literarioa. Hasieratik heldu zion beretzat ere lan zailena zen Aita Donostiak baserriz baserri eta herriz herri jasotako kantu zahar bildumari eta bestea bukatu zuenean honetan sartu zen erabat.

Esan dugun bezala, Aita Jorgek aspaldidanik hasita zeukan Kantutegiko prestakuntza lehenago Aita Donostiak bere "Euskal Eres-Sorta"n erabilitako sistema berdintsua erabiliz, hau da, kantuak gaiaren arabera sailkatuz eta dantzak hitzak izan ala ez izan beste multzo berezian sarturik. Hori



guztia aurrera ateratzeko eta "Nafarroako Euskal Kantu Zaharrak" egin zuen bezala, informazio zabalak emanez egiteko ez zuen behar bezalako baldintza egokiak euki Komentuko bere zeldaren estutasun hartan eta jarraitu ezinean aurkitzen zen zorigaitzezko istripu batek elbarri utzi zuenean.

Garbi zegoen osasunez ondo ez zebilen eta ordurako urteetan sartua zegoen 90 urteko fraile langile horrek laguntza behar zuela Kantutegiaren prestakuntzan.

Urte batzutan geldirik egon zen eginkizun hori eta 1990. urtearen bukaeran, Eusko Ikaskuntzak Aita Donostiaren Euskal Kantutegia argitaratzea erabaki zuen, eta horren prestakuntzan Aita Jorge de Riezu behar zuen laguntza hori emateko Lekarozko Komentuko Aita Claudio Zudaire eta Juan Mari Beltran Argiñena herri musikaren iker-tzaile eta Hernaniko Udal Musika Eskolako herri soinutresnen irakasle dena aukeratu zituen.

Hasi aurretik, lan handi, zaila eta interesgarri horrek suposatzen zuen erronkari aurre egiteko toki eta baliabide egokiak behar genituela ikusten genuen eta berehala Aita Donostiaren iloba den Teresa Zulaikak, azken 30 urtetan Aita Jorgeren laguntzaile fina izan denak eta bere senarra den Bixente Zaragueta hernaniarrak Hernaniko Kale Nagusiko 16an duten etxe eder horren biblioteca eskeini zuten horretarako.

Horra ekarri genuen Lekarozko material osoa eta bertan jarri genuen beharrezko informatikako tresnak. Berehala ekin genion hasi hasieratik lan horri.

KANTUTEGIAREN AZKENEKO PRESTAKUNTZA

Aita Donostiak utzi zigun lana, era askotako koaderno eta apunteetako material folklorikoa bilduz eta sailkatuz Aita Jorge de Riezu buruturiko antolaketa lan neurtezinak argitara eman aurretik behar zuen azkeneko prestaketa puntua eta sistematizazioa izan da, hain zuzen ere, haren lankideek bururatu nahi izan dugun zeregina.

Egungo lan prozedurek eta baliabide teknikoek aurkezpen berezia eskatzen dute fitxa bakoitzeko, halako moduan non fitxa horrek, Kantutegiaren egileek jasoriko datuak, oharpen osagarriak, bibliografia gehigarriak, etab. gorde izanik, informazio homogeneoa eta sistematizatua eskaintzen duen obra guztian zehar.

Horretan hasi ginen Hernaniko txoko eder eta atsegin horretan 1990. urtearen bukaeran. Aurreneko sei hilabeteetan biok elkarrekin aritu ginen Kongregazioak Aita Claudio Zudaire Estatu Batuetara bidaltzea erabaki zuen arte eta gero banaturik 1994ko urrian 2000 kantua eta doinurik osaturiko Kantutegi hau argitaratu arte.

Denbora horretan eta bizi zen bitartean Aita Jorgek zuzendu zuen gure lana. Hernanin prestatutakoa astero edo bi astean behin eraman eta aurkezten genion Kaputxinoek Iruñean duen zaharren egoitzan eta zorroztasun handiz zuzentzen zuen dena, elbarri baina buru oso argiko gure fraile maiteak. Baina, 1992ko martxoaren 27an utzi zigun eta geroztik umezurtz jarraitu genuen harek erakutsi eta esandakoan oinarriturik.

HERNANI AITA DONOSTIAREN EUSKAL KANTUTEGIAN

Guztira 22 kantu eta doinu jaso zituen Hernanin Aita Donostiak. Horietako 18 Ereñotzun. Ba dira Hernanin jasoak baina, beste herrietako jatorriarekin azaltzen direnak.



HONA HEMEN KANTU ETA DOINUEN ZERRENDA:

ZENBAKIA	IZENBURUA	INFORMATZAILEA	NOIZ JASOA	KANTUAREN JATORRIA
1 – 68	AIZAK, ANTON, PERMINI	D. Jose M ^a Setien	1913	Ereñotzu
113	AMERIKARA NUA	D. Jose M ^a Setien	1912	Zizurkil
163-1	BATIAN ARRASTAKA	D. Jose M ^a Setien	1912	Tolosa
201	ASTTUA HELTÜ BORTÜTIK	P. Pierre Lhande	1917	Zuberoa
2 – 208	ATSO ZARRA BELENDRIK	D. Mariano Azkue	1912	Ereñotzu
3 – 208-1	ATSO ZARRA BELENDRIK	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
4 – 236	AXERI DANTZA	Pablo de Zubillaga	1920	Hernani
5 – 289	BERTSO BERRIAK JARTZERA...	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
6 – 295	BERROGEI BAT MUTILZAR...	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
7 – 344	BOST LLAGA SAGRADUEN	D. Jose M ^a Setien	1913	Ereñotzu
8 – 479	FRANTZIETIK DATOZTE	D. Jose M ^a Setien	1913	Ereñotzu
9 – 498	GERRERO ZARRAK	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
10 – 501	GIZON TA EMAKUME	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
11 – 635	JOSE AGUSTIN	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
12 – 742	GABILLUNIAN IREKIKO'RE	D. Jose M ^a Setien	1913	Ereñotzu
902	PENAGARRIYA DAGO	D. Jose M ^a Setien	1912	Goizueta
13 – 913	PRANTZEZ EUSKERA DEITZEN...	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
14 – 977	TXAKUR BELTZ TXIKITXO BAT	D. Jose M ^a Setien	1913	Ereñotzu
15 – 1066	MARKESAREN ALABA	D. Jose M ^a Setien	1912	Ereñotzu
1301	AXERI DANTZA	Pablo de Zubillaga	1920	Hernani
1370	GORPUTZ EGOKIA	D. Jose M ^a Setien	1912	Goizueta

Hona hemen, berriz ere nahi duenak erabil ditzan, Hernanin bildu eta bertako jatorriarekin agertzen diren kantuen partiturak hauen musika eta hitzekin:

Axeri Dantzaren bi bertsio azaltzen dira. Biak E. Jorda de Gallastegik jasoak eta informazio guztiarekin Aita Donostiari eman-

dakoak. Bat haurren kantua 236 zenbakia-ekin eta bestea, 1301 zenbakiarekin gaur egun ere hain ezaguna den dantza-jokoa. Biek doinu berdintsua dutenez, guk lehenengo, hitzak dituenak bakarrik azaldu dugu hemen. Dantza-jokoa den bigarren bertsioaren informazio zabala Aita Donostiaren Kantutegian ikus dezakezue.

68.-

AIZAK, ANTON, PERMINI

Ai-zak, An-ton, Per-mi-ni, ik e—san al di—
 -ok ber—tsu—e-tan txau-tu-tzen ez
 au—e—la i—ñork? Be—raz, ni e—re
 i—re men—de—ko na—txi-ok? I—
 -xi-lla ez—pa-na-bil, to, mo—tell, be-gi-rok! Nai
 dek au-rren ja-rri-ak pro—ba gai-ten bi—
 -ok?

208.-

ATSO ZARRA BELENDRI

A—tso za—rra be—len-drin, i—re
 ben-tak e—gin din. Or-tzak e-re juan zaiz-kin
 e—ta dia-bru za—rra di—ru—din, ort-zake—
 -re juan zaiz-kin e—ta dia-bru za—rra di—ru—
 -din, ort-zake—re juan zaiz-kin e—ta dia-bru
 za—rra di—ru—din. Txi—ru—lin,
 brin—ku-lin, brin—ku-lin, brin—ku-lin, txi—ru-lin,
 brin—ku-lin a—tsu—a. Txi—ru-lin, -a. Su on-do—
 -an a-go-e—ni—an, ez dau-kan mox—kor gaiz-tu—
 -a, ez dau-kan mox—kor gaiz—tu—a.

208.¹
Atso zarra belendrin

A-tso za-rra be-len-drin, i-re
fes-tak e-gin din; or-tzak e-re juan zaiz-
-kin, dia-bru zar bat di-ru-din. A-tso
za-rra-ra kor-te-si-a pu-tza da-ri-o, zi-a,
zi-a. Ar-tzen ba-di-nat i-lle-ki-a, e-rre
-ko di-nat i-pur-di-a, xi-ru bi-ru
brin-ku-lin, xi-ru bi-ru brin-ku-lin, xi-ru bi-ru
brin-ku-lin. A-tsu-a, su on-do-an a-go-e-
-ni-an, e-tzu-nen mox-kor gaiz-tu-a.


236.-

AXERI - DANTZA

A-xe-ri dan-tza, txi-bu txi-bu-le-te.
O-pi-lla jan da kon-ke-te.
Txi-bu, txi-bu, li-bu, li-bu-le-te, te, te, te,
txi-bu, li-bu, li-bu, li-bu-le-te, te, te.

289.-


BERTSO BERRIAK JARTZERA NUA



Ber-tso be-rri-yak jar-tze-ra nu-a, kon-be-
-ni di-ran mo-du-an, gu-re kon-tu-ak no-la
di-ra-den ar-tu di-tza-ten go-gu-an. Ez-kon-
-du e-ta zer bi-zi mo-du pa-sa-
-tzen de-ran mun-du-an; o-rra e-der-ki es-kar-
-men-ta-tu den-bo-ra juan ta on-du-an.


295.-

BERROGEI BAT MUTILZAR GAUDE




Be-rro-gei bat mu-til-zar gau-de e-rri-
-yan; i-ru-ro-gei nes-ka-
-zar pen-dien-te aundi-yan sar-tu i-yi-
-yan. Pla-za-ran bi-ar du-te u-
-rren pe-ri-yan, bat e-ro bat an sal-
-du lei-ke a-ri-yan.

**344.-
BOST LLAGA
SAGRADUEN**



**479.-
FRANTZIETIK DATOZTE**



498.-
GERRERO ZARRAK

Ge-rre-ro za-rrak e-ran-tzun zu-ten: e-der-ki
 da-go gauz-o-ri; e-ta kon— for-me ge-ra-de
 da-nak ja-rrai-tu— tze-ko gu zu-ri. Gu Er-ni-
 -o—ko ai-tze-tan be-ra bost eun gi-
 -zon bu-ru zu-ri, a-mil gai— te-zen e-ta len-
 -bai-len gu-re o—do-la i-xu—ri, on-do-ren-
 -go-rik E-rro-ma-ta-rren men-de ez
 de-din e-ro-ri.


501.-
GIZON TA EMAKUNDE

Gi—zon ta e—ma—ku-me o-rain-go al-di-
 -an gei—e—nak e—men di—ra gu-
 -re Es—pa—ñi—an. Tren—bi—de e—do
 tras-te o—rrer ai-tze—ki—an, o-
 -nez-ke-ro txit as-ko ez da-go Fran-tzi—an.

635.- JOSE AGUSTIN




742.- GABILLUNIAN IREKIKO'RE



913.- PRANTZEZ EUSKERA DEITZEN DIOTEN



**977.-
TXAKUR BELTZ
TXIKITXO BAT**



**1066.-
MARKESAREN ALABA**

